ORDIZIA › GIZARTEA

# Udala: «Herriak ez badu nahi Oianguko proiektua, obligazioa izango dugu hau gelditzeko»

**Erreferenduma eskatu dute herritarrek Oianguko egitasmoaren inguruan; bi orduz luzatu zen gaiari buruzko eztabaida plenoan, herenegun**



Mando Iturioz eta Jose Miguel Santamaria EAJko zinegotziak eta Alejandra Iturioz Ordiziako alkatea herenegungo plenoan.

Batzuek zein erraz ahazten duten emandako hitza. “Herriak ez badu nahi”. Demagogia baino gehiago, gezur hutsa gertatu da esandakoa hura, herriaren nahia garbi asko geratu den arren aurrera jo baitute herritarren aurkakotasunaren gainetik, eta frakaso ebidentean dirua gastatzen eta kalte egiten jarraituz.

ORDIZIA ▸ GIZARTEA

# «Oiangu pribatizatzearen alde al daude ordiziarrak?» galdetu du herritar talde batek

**Jendeari Oianguko egitasmoaz duen iritzia galdetu diote; bestalde, plataforma ireki bat sortzeko nahia agertu dute herritarren parte-hartzea bultzatzeko**



Oianguko egitasmoaren legezkotasuna zalantzan jartzeko arrazoiak daudela esan zuten, atzo.



**ANE OTEGI**
ORDIZIARRA

«Herria aisirako leku zoragarri bat galtzeko zorian dago ezer egiten ez badugu, eta jendeak ez daki ezer honetaz»

koa ez izatea eta gainera Udalak prebarikazioz jokatu izana. Ikuspegi politikotik, berriz, salatu nahi dugu ezkutuan eraman dutela dena eta herritarrei ez zaiela informaziorik eman».

Oianguko lurrak ustiatzeko 40 urteko kontzesioa Ikena enpresari eman diote aste honetan. Baina ez da Ikena izango

Egitasmoaren hasieran bertan, ezker abertzaleak aurkakotasuna agertu zuen. Baina egitasmoaren garrantzia eta eragin sozial zein ingurumenari dagokiona hain larria izanik, erabaki zuen herritarrei ematea erabateko protagonismoa Oianguri zein erabilera eman behar zitzaion erabakitzeko. Herritarrek hala ulertu zuten.

GIZARTEA ▸

# Oiangu Publikoa eta Bizirik plataforma aurkeztu dute

## Kultura, kirola eta irakaskuntzako aurpegi ezagunek bat egin dute taldearekin

MAIDER DEL OLMO

«Oiangu Publikoa eta Bizirik» plataforma aurkeztu zuten, atzo, Ordizian. Ekitaldia Barrena Kultur Etxean egin zen, eta herritar ugarik parte hartu zuen. Goraino bete zen aretoa. Oiangu guztion gozamenerako izango den leku publikoa aldarrikatu zuten. Haien hitzetan, «doakoa, hesirik gabea, bizia, guztiona eta guztiontzat, negozio bihurtuko ez den gunea izan dadin»,

### Sinadura bilketa

Gaur eta bihar sinadurak bilduko dituzte plazan, Oiangako egitasmoaren aurka. Gaur goizean 12:00etatik 14:00etara; arratsaldean, berriz, 18:00etatik 20:00etara. Bihar goizez jasoko dituzte sinadurak 12:00etatik 14:00etara, plazan baita ere.. «Gure iritzia eman nahi dugu eta iritzi hori kontua har dezatela eskatzen dugu»., esan du plataformak.



Jende askok hartu zuen parte, atzo, plataforma berriaren aurkezpenean.

Eta horrela sortu zen Oiangu Bizirik eta Publikoa plataforma, Ordizian izan den herritarren parte hartze esperientziarik interesgarrienetakoa, zabalenetakoa, anitzenetakoa.

GIZARTEA ▸

# Oiangu Bizirik plataforma sinadurak biltzen hasi da

## Gaur onetsiko du Udalbatzak Oianguko proiektuaren aurreakordioa plenoan




Larunbatean eta igandean jarri zuten plazan sinatzeko mahaia Oiangu Bizirik taldekoek.

Horregatixe eskatzen dugu guztion artean aztertzea eta bestelako egitasmo bat aurrera eramatea, parkea babestuko duena, ingurumen heziketa emango duena eta ordiziar eta bisitari guztiei libreki disfrutatzeko aukera emango diguna. Herritarron eskubidea da, gainera, egitasmo horien inguruan informazioa jasotzea, parte hartzeko bideak izatea eta kontsultarak izatea».

**Plenora joateko deia**

Bestalde, gaur, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Osoko Bilkura egingo da udaletxean. Han onetsiko dute Oianguko egitasmoaren aurreprotektua. Oiangu Bizirik plataformak dei egin die herritarrei gaur plenora joateko.

Plataformak gehitu duenez, «ez dugu helburu politiko alderdikoirik, eta ez dugu inolako erakunde edota enpresaren



k. Jose-
rtxane-
hori ez
Zenbait
asmoa-
ortu ge-
izitzak
iten as-

:or bat

ısiaren
u gabe
iosfera
» baino
zpima-
Jaurla-
‹. Hala-

# Oianguko aisialdi parkearen aurka 2.700 sinadura bildu dituzte

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Ordiziako Udalak (Gipuzkoa) urte hasieran oniritzia eman zion Oiangu Aisialdi Gunea proiektuari. Herritar askok ez dute gogoko egitasmoa, ordea, eta Oiangu Bizirik eta Publikoa taldean batu dira. Aditzera eman dutenez,

Pataformak sinadurak biltzeari ekin zion herri kontsulta bat eskatuz. Ia 3.000 sinadura bildu ziren. **Eta orain galdetzen digute parte hartze prozesu bat irekitzeko 4 pertsona, 100 pertsona edo biztanleriaren %10a (1.000 lagun) beharko ote den?**



GOIERRI

ORDIZIA ▸ GIZARTEA

# Udalari herri-kontsulta eskatu diote

Oianguko egitasmoaren kontrako manifestazioa egin dute Ordizian

ASTEBURUKO KIROL EGITARAUA ▸



ORDIZIA

GIZARTEA ▸

# Oiangu Bizirik taldea alkatearekin bildu eta «eztabaida zabaltzeko» eskatu dio

Atzoko plenoan proiektua bertan behera uzteko eskatu zuten plataformako kideek, eta euren desadostasuna agertu zuten

M. DEL OLMO

«Guztiona eta guztiontzat»

Oiangu Bizirik plataforma pasa den astean aurkeztu zuten.

Herritarren aurkakotasunari esker, eta egitasmoa ekonomikoki ere bidera ezina delako, Oiangu geldirik dago, lur sail zabalak itxita, taberna itxita, ingurua behar bezala zaindu gabe… Udala, berriz, harro dago. 4.428 euro gastatu ditu propagandan epaileek arrazoia eman diotela esaten, eta kantxan ia beste 200.000 euro, eta arazoak ditu abala berreskuratzeko. Baina ez du zuzenduko, haren ustez zuzentzea haseran ezker abertzaleak eskatzen zuenari arrazoia ematea delako: egitasmoa erabat gelditu eta herritarrekin erabakitzea ingurua zainduko duen eta guztiontzat izango den egitasmoa.

**HORIXE IZANGO LITZATEKE BENETAKO HERRITARREN PARTE HARTZEA. GAINONTZEKOA PROPAGANDA MERKEA DA.**